

OHAR OROKORRAK

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Ekainaren 14an, asteartea, plazan ospatuko den urteko OHIKO BATZARRERAKO deialdia bidaltzen dizuegu. Beti bezala, bertan jorratzen diren gaiak denon interesekoak direnezparte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

ORDUA: **17:30ean, LEHEN DEIALDIA**
18:00etan, BIGARREN DEIALDIA
18:30etan, HIRUGARREN DEIALDIA

3 DEIALDI agertzen dira, Kooperatiben Legeak adierazten duenaren arabera. Jakinarazten dizuegu, 1. edo 2. deialdian "Quorum" a nahikoa osatuko balitz, bilerari hasiera emango zaiola, 3. deialdiak adierazten duen orduari itxoin gabe.

LEKUA: **KOOPERATIBAKO EGOITZAN (PLAZAN (Maria Etxe-txiki kalea, 14)**

EGUNEKO LAN ZERREDA:

1. Aurreko batzarreko onespentxostenaren irakurtzea eta Lehendakariarekin batera 15 egun barru, Batzar honen akta onartuko duten bi bazkideen aukeraketa, nortzuk Idazkariarekin batera akta sinatuko duten.
2. 2021. ekitaldiko kudeaketa aztertzea, ikuskaritzaren iritzia azaltzea, urteko emaitzen banaketaren proposamena eta hala balegokio, onartzea.
3. 2022-2023 ikasturterako aldizkako ekarpenak eta, hala balegokio, onartzea.
4. Ikastolaren eraberritzea.
5. Batzordea.
6. Tolare
7. Galde-eskeak.

Gogoratu, Batzarrera etortzerik ezin duzuenok, mezu honekin batera bidaltzen dizuegun [DOKUMENTUA](#) behar bezala bete eta sinatuta, zuen botoa beste bazkide batengan ahalordetzeko aukera dagoela.

2022-2023 – ZERBITZUAK – IZENA EMATEA

Ikasturtea amaitzear dago eta dagoeneko hasi gara 2022-2023 ikasturtearen zerbitzuetako antolaketaekin. Honekin lotuta, gogorarazi nahi dizuegu;

- **NAHIZ ETA ZERBITZUEN URTEROKO ERABILTZAILEA IZAN, IZENA URTERO EMAN BEHAR DA.**
- **IKASLE BAKOITZEKO INPRIMAKI BAT BETE BEHAR DA.**

Izena emateko epea: **Ekainak 17.** Jarraian dituzue bete beharreko inprimakiak:

[JANGELA](#) [ZAINZA](#) [GARRAIOA](#)

ARABA EUSKARAZ



"8. alaba" lelopean, Araba Euskarazek Trebiñun bultzatu nahi du euskararen erabilera. Urtean zehar, hainbat ekitaldi egin dituzte lurralde osoan, eta Araba Euskaraz familia osoarentzako jai parte-hartzailea izango da amaiera handia.

Olarizuko zelaietan ospatuko da Araba Euskaraz-en aurtengo edizioa. Ekainaren 19an izango da, eta Arabako ikastola guztiak, lehen aldiz, jaia elkarrekin antolatu dute. Bildutako irabaziak Argantz on ikastolarentzat izango dira. Anima zaitez parte hartzera!

LH OHARRAK

LH4 IRTEERA MENDIGORRIA (2 EGUN)

Maila	LH4	Prezioa	55,50€
Nora	MENDIGORRIA	Irteera ordua	Ohikoa
Noiz	Ekainak 16-17	Itzulera ordua	17:00
Garraioa	Autobusa		
Aipatzekoak	Eraman beharrekoa: <ul style="list-style-type: none">○ Bainujantziak.○ Txankletak○ Eguzkirako krema eta eguzki ondorengo krema (aftersun).○ Lo-zakua.○ Bisera.○ Nezeserra.○ Pijama.○ Azpiko eta gaineko arropa aldatzeko. Kirol arropa (zapatilak)○ Toalla.○ Moskitoen kontrako krema.● Beste motxila batean, lehenengo eguneko bazkaria, hamaiketakoa eta merienda.		

*Ekaineko erreziboarekin batera kobratuko da.

DBH OHARRAK

DBH1 ZUHATZA

Maila	DBH1	Prezioa	50,96€
Nora	Zuhatzara	Irteera ordua	9:00
Noiz	Ekainak 13-14	Itzulera ordua	16:30
Garraioa	Autobusa		
Eraman beharrekoak	<ul style="list-style-type: none">• Bainujantziak• Txankletak• Toailak• Eguzkirako krema eta eguzki ondorengo krema (aftersun)• Lo-zakua• Nezeserra• Pijama• Aldatzeko arropa (gauean freskatu egiten du)• Linterna		
Oharrak	<ul style="list-style-type: none">• Litxarkeriarik ezin dute eraman.• Mugikorra ezin dute eraman.• Mahai joku eta jolasak eraman ditzakete.• Musika ere eraman daiteke.		

*Ekaineko erreziboarekin batera kobratuko da.

**DBH2
ZUHATZA**

Maila	DBH2	Prezioa	79,45€
Nora	Zuhatzara	Irteera ordua	9:00
Noiz	Ekainak 14-15-16	Itzulera ordua	16:30
Garraioa	Autobusa		
Eraman beharrekoak	<ul style="list-style-type: none">• Bainujantziak• Txankletak• Toailak• Eguzkirako krema eta eguzki ondorengo krema (aftersun)• Lo-zakua• Nezeserra• Pijama• Aldatzeko arropa (gauean freskatu egiten du)• Linterna		
Oharrak	<ul style="list-style-type: none">• Litxarkeriarik ezin dute eraman.• Mugikorra ezin dute eraman.• Mahai joku eta jolasak eraman ditzakete.• Musika ere eraman daiteke.		

*Ekaineko erreziboarekin batera kobratuko da.

**DBH3
KONTSUMO TAILERRA**

Maila	DBH3	Prezioa	-----
Nora	Intxaurreondo	Irteera ordua	8:08
Noiz	Ekainak 13	Itzulera ordua	13:30
Garraioa	Trena		
Aipatzekoak	<ul style="list-style-type: none">• Mugi txartela• Hamiketakoa eraman dezatela		

DBH3
ITSASPE GEOPARKEA

Maila	DBH3	Prezioa	6,66€
Nora	Itsaspe geoparkera	Irteera ordua	9:00
Noiz	Ekainak 17	Itzulera ordua	17:00
Garraioa	Joan autobusean/buelta trenean		
Aipatzekoak	<ul style="list-style-type: none">• Mugi txartela• Hamaiкетakoa eta bazkaria eraman dezatela		

*Ekaineko erreziboarekin batera kobratuko da.

BESTELAKO OHARRAK

HIZTUN EKOLOGISTAREN DEKALOGOA

ZER DUTE ESATEKO ZARAUZTARREK HIZKUNTZAREN INGURUAN?

[BIDEOA IKUSI](#)

ERAZTUN BERDE URDINA

Ekaineko programazioa: [linka](#)

Ekintza batzuk helduei zuzenduta daude, beste batzuk, nerabeentzat haur eta familientzat izango dira.

Bestalde, ekintza hauen inguruko albisteak jaso nahi izanez gero Eraztun Berde Urdinaren buletinean harpidetza egiteko aukera zabaldu dugu, hemen duzue esteka:

<http://labur.eus/harpidetza>

Besterik gabe, agur bero bat.
ZUZENDARITZA

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Maria Etxe-txiki kalea 14,
20800 Zarautz
Tif: 943 831 752

zarautz@ikastola.eus



zarauzkoikastola.eus